



Arartekoaren ebazpena, 2008ko irailaren 23koa. Horren bidez amaitzen da bere esku-hartzea emakume gazte batek egindako kexari dagokionez. Emakume horrek adierazi zuen tratu desagokia jaso zuela Donostiako Udaltzaingoaren eskutik.

Aurrekariak

1. Emakume batek erakunde honetara jo zuen Donostiako Udaltzaingoak emandako tratua salatzen. Adierazi zigunez, arazoa hasi zen aipatutako polizi kidegoaren patruila batek bere aurka eta beste pertsona batzuen aurka salaketa egin nahi izan zuenean, bide publikoan marihuana kontsumitzeagatik. Azkenean, atxilotu egin zuten.

Kexa, nagusiki, toki hartara, gaztearen arabera, geroago iritsi ziren bi agenteen aurka bideratu zen. Bere bertsioaren arabera, agenteek iletik heldu, besotik eutsi, lurrera modu bortitzean bota eta han geldiarazi egin zuten lepoa eta aurpegia zapalduz. Bere kontaktaren arabera, poliziaren esku-hartzearen arrazoia ez zuen ulertzen eta esku-hartze hark aurpegian zauriak eta ahoan hemorragia eragin zizkion. Horren ondorioz, mediku batek artatu behar izan zuen atxilotetan.

Erreklamatzailaren arabera, agenteek indarkeria erabili zuten lurretik altxa eta bilurrak ipintzeko orduan ere, eta beren jarduteko moduak eragiten ari zitzaien minaz kexatu zenean, eta behar bezalako tratua emateko eskatu zirenean, eta, gainera, klabikulako haustura izan zuela jakinarazi zirenean, agenteetako batek esan zion, hobe zuela burua txikitu izan balu.

Kexagilea kexu zen, halaber, polizi bulegora eraman zuten bitartean jaso zuen tratu iraingarriaz.

Horri dagokionez, adierazten du aipatutako agente bera patruilako kideari zuzendu zitzaioela eta *"la zorra esta me ha tirado del pelo"* esan ziola, baita, interesdunaren esanean, *"los picoletos deberíamos de estar en Logroño y que ésta iba a ser una puta picoleta más para la lista negra"* ere. Adierazi zigunarekin bat, ibilbidean zehar funtzionarioek etengabe burla egin zioten eta bere pertsonari buruzko komentario iraingarriak egin zituzten.

Interesdunak baieztatzen du, halaber, agenteei laguntza medikoa eskatu ziela jasan zituen lesioengatik eta hemorragia ez zelako gelditzen, baina agenteek bere eskaerari ez ziotela jaramon egin.

Horrez gain, esan digunaren arabera, polizi egoitzako ziegen eremuan, agente berberak irain gehiago bota zituela berari buruz, eta eginbideak bideratzeaz arduratzen denari honela jakinarazi zion bere lankidea non zen: *"había ido a por*





un vaso de agua para darle a esta zorra”, eta honakoa adierazi zion: “esta hija de puta está loca”.

Erreklamatzalea kexu zen, halaber, atxiloketan ez zituztelako atxilotu gisa zituen eskubideak errespetatu.

Gai horri dagokionez, aipatzen duenez, behin eta berriz eskatu zuen laguntza medikoa lehenengoz eskatu zuenetik ia 3 ordu igaro arte ez zuen jaso, ez zioten bere eskubideen berri eman eta ez zuen abokatuaren laguntzarik izan.

Bestalde, kexan adierazten denez, eginbideak bideratu zituen agenteak uko egin zion emakumea artatu zuen zentro medikoak lesioen inguruan egin zuen txostenaren kopia erreklamatzalearen amari emateari.

2. Kexa aztertu eta Donostiako Udalarari laguntza eskatu genion interesdunak salatutako egintzak ikertu zitzan, izaera orokorreko gomendioan ezarri genituen ereduei jarraiki: “Polizi kidegoek kontrol-tresnak ezarri beharra, agenteek arauz kanpo jarduten duten kasuetarako” (2003ko Eusko Legebiltzarrerako ohiko txostena), eta horri zegokionez bideratutako jardueren eta emaitzen gaineko informazioa eman ziezagun eskatu genion.

Halaber, eskatu genizun agenteek indarra erabiltzeko beharra izan bazuten, erreklamatzaleak ziurtatu bezala, jakin nahiko genukeela poliziaren esku-hartzearen kontrola txostenean adierazi genituen gomendioekin bat etorriaz egin zenentz, “Bilboko San Frantzisko zonan atzerritarrekiko burututako jarduera polizialak”, [(7. eta 8. gomendio zehatzak) 1998ko Eusko Legebiltzarrerako ohiko txostena]. Gomendioak bete baziren, horren ziurtagiri zen dokumentuak bidaltzeko eskatu genion.

Bestetan adierazi dizugun bezala, gure ustez, adierazitako gomendioak edozein jarduera poliziali luzatu dakizkioke, edozein lekutan gertatzen delarik ere, gomendiook izaera orokorrekoak direlako.

Txostenean adierazitakoarekin bat, gomendioak jarraitzearen alderdi batzuekin interesatuta gaude, baita izaera orokorreko gomendioak agenteek poliziaren esku-hartzeetan izandako jardunbideari buruz egindako kexuei buruzko kontrola eramatearen beharrekin.

Azkenik, eskatu genizun, atxiloketaren ondorioz egin zen polizi atestatuaren kopia bidaltzea eta jardun horren egiaztagiri izan zitezkeen beste edozein erregistro dokumentu ere.

3. Udaletxeak lau hilabete behar izan zituen gure laguntza eskaerari erantzuteko, guk ezarri genion 3 hilabeteko epea gainditu zuen eta tarte horretan ez zigun berandutzeari buruzko azalpenik eman. Informazioa berriz eskatu genionean





erantzun zigun eta denbora luze joan bazen ere, guk nahi genituen gai gehienei buruzko daturik ez zigun eman ezta eskatutako dokumentazioa bidali ere.

Era berean, gertatutakoak argitzeko burututako ikerketari dagokionez, udal administrazioak esan zigun soilik agenteen bertsioa erreklamatzailerak guri emandakoaren zeharo ezberdina zela. Ez zuten datu gehiagorik gehitu, ez zuten poliziaren bertsioa eman ezta atxilotetaren arrazoiak ere.

Gerora jakin genuen, agenteek pertsona hori atxilotu zutela, ustez, haiei eraso egin zielako.

Kexaren kasuan, erakunde honek indarra erabiltzearen gainean egin behar den kontrolari buruzko gomendioak betetzeari dagokionez, inplizituki onartzen zuen agenteek indarra erabili zutela. Izan ere, adierazi zigun jardueraren erregulartasunari buruz ezin zuela ezer esan horren balorazioa gaiaren ardura zuen epaitegiaren eskuetan zegoelako. Hala ere, ez zigun guk eskatutako informazioa eskuratu.

Aitzitik, erreklamatzailerak atxilotu gisa zituen eskubideak errespetatu ez zizkietenaren gainean hainbat erreferentzia egin zituen. Gure aburuz, ez dira nahikoa poliziaren jardueraren alderdi eztabaidagarriak baloratzeko.

Horri dagokionez, adierazi zigun, atestatuan zioen bezala, interesdunari bere eskubideen berri eman zitzaiola instrukzioa hasi eta hiru minutura. Bestalde, atxilotuaren zauriak artatzeko osasun zentrora noiz eramán zuten jakinarazi zigun.

Baina ez zuen aipatzen lesioak noiz sortu ziren, ezta erreklamatzailerak noiz eskatu zuen medikuaren arreta. Ez zuen esaten ere eskatu eta berehala bete ote zuten atxilotuaren eskaera, eta horrela izan ez balitz, berandutzeari buruzko arrazoiak ez zituen gehitu.

Erakunde honen ustetan oinarritzkoa zen halako alderdiak ezagutzea erreklamatzaileraren eskaera berehalakoan atenditu zen jakiteko. Eta horrela gertatu ez balitz, erabakiaren argudioak baliozkoak diren ikustea, horixe baizen kexaren funtsa.

Bestalde, udalaren erantzunak ez zuen abokatuaren laguntzaren gabeziari buruz ezer aipatzen, eta hori kexaren beste alderdi bat zen.

Udalak bidalitako informazioan ez zen argitu Udaltzaingoak ukatu ote zion atxilotuaren amari osasun zentroko txostenaren kopia eskuratzea. Hori kexan jasota zegoen eta halakorik gertatu bazen, halako erabakiak hartzeko arrazoirik ere ez zen adierazi. Puntu honetan zioen bakarra atestatuak berak jasotakoa zen: *"por ser un documento que debe estar unido al mismo para su traslado al Juzgado de Guardia"*.





Azken batean, atestatua ez bidaltzeari buruzko arrazoirik ez zen ageri bertan. Ezta gainontzeko erregistro dokumentuak eta beste dokumentuak. Horien bidez argituko baizen indarraren erabileraren gainean guk egindako gomendioak aplikatu zirenentz. Eta guztiak eskatu genituen.

Udal azalpenetatik ateratako gure ondorioen arabera, arrazoi hauengatik izan zen informazio falta: udalak ulertzen zuen zigor jurisdikzioak bideratzen zuen prozedura, atxiloketaren ondorio, gure laguntza eskaerari eman ziezaiokeen erantzuna baldintzatzen zuela, baita poliziako arduradunen jardunbidea, egintzen ikerketari dagokionez.

4. Jaso genuen erantzunak behartu gintuen eta berriz ere udalaren laguntza eskatu behar izan genuen.

Bigarren eskaeran, mota honetako kexen ikerketaren aurrean gure jarrera zein zen gogorarazi genion, izaera orokorreko gomendioan ñabardura guztiekin agertzen zena: "Polizi kidegoek kontrol-tresnak ezarri beharra, agenteek araz kanpo jarduten duten kasuetarako". Hori guztia kexaren marko eredugarri izango zen lehenengo eskakizunean bidali genion.

Errepikatu nahi dugu kexaren trataera gomendioan ezarritako irizpideekin bat etorri behar zuela. Han adierazi bezala, zigor izapidetzak martxan egoteak ez zuen oztoporik jartzen agenteen jardunbidea ikertu zedin. Halaber, ez zen oztopo poliziako arduradunek jardun hori diziplinaren ikuspuntutik iker zezaten, ezta errespetatu beharreko jarrera jarraibideentzat ere.

Halaber gogorazi nahi dizugu, gomendio berarekin bat, salatutako gertakariak ikertzea ezin dela gertakarietan parte hartu zuten udaltzainen bertsioa onartzera edo horiek esaten dutena jasotzera mugatu, horrek kexa erabat baztertzea ekarriko lukeelako.

Gogoeta horiek oinarri hartuta, udalari berriz eskatu nahi diogu hasieran eskatutakoa, erreklamatzailak salatu zituen egintzak ikertu daitezen eta ikerketaren edukiaren eta emaitzen berri eman diezagun.

Gure lehenengo gutunean eskatu genion laguntza eskatu nahi genuen berriz ere. Horren bidez informazioa jaso nahiko genukeen indarraren erabileraren gomendioaren gaineko kexaren eta berari buruzko datuak jasoko lituzkeen edozein dokumenturen gainean. Halaber, dokumentu horien kopia, atestatuarena eta atxiloketaren erregistro dokumentuen kopia eskatu genituen.

5. Udalak bigarren eskaerari erantzun egin zion guk zehaztutako epea iraungi eta askoz geroago. Lehenengo aldiaren bezala egin zuen eta ez zigun informazioa bidali eskatu genion arte.



Bere erantzunean azpimarratu zituen izapidetza judicialak sortzen zituen baldintzatzaileetan eta horrek guri erantzuna ematea oztopatzen zuela. Izan ere, berak adierazi bezala, berak gaiaren inguruan zuen iritzia emanaz gero, instrukziopean edo zigor prozeduran sar zitezkeen jazoera batzuen gaineko aurre epaia ematea zitekeen.

Aldiz, ulertarazi zigun nolabaiteko ikerketa egin zuela baina ez zuela adierazi eta agenteen jardunbidea ere baloratu zuela egindako ikerketen haritik eta honakoa nabarmendu zuen: *“Es evidente que de los controles y de las informaciones recabadas en su momento no se desprendía, en principio, evidencia alguna de una actuación irregular de los Agentes intervinientes en la detención de la autora de la queja ante esa Institución, pero ello no quería decir, ni mucho menos, que era aceptada, sin más, la versión de dichos Agentes o de rechazar de plano la queja”.*

Hala ere, ez zigun ezer esan egindako ikerketa horien edukiari buruz, guk eskatu bezala. Halaber, ez zigun adierazi nola ondorioztatu zuen agenteen jardunbidea egokia izan zela.

Indarraren erabileraren kontrolerako gure gomendioari dagokionez, behin eta berriz errepikatu zuen, ez zela bere ardura erabilitako indarraren gainean epairik egitea. Izan ere, bere ustetan epaitegiaren lana zen hori. Hala ere, guk egindako galderak ez zituen erantzun, agenteek kexagilea atxilotzeko erabili zuten indarrari buruzkoak polizi-atestatuan jaso zituztela adieraztea salbu.

Aitzitik, polizi arduradunek bere menpekoen jardunbideen kontrol orokorra nola burutzen duten azaldu zigun: *“básicamente a través de la propia cadena de mando, por el instructor del atestado policial y por sistemas técnicos, primordialmente el de videovigilancia, por los que se mantienen continuamente visionados a los detenidos y a los Agentes que los acompañan”.*

Orduan ere ez zizkigun atestatu eta atxilotetaren inguruko beste erregistro dokumentuak bidali. Halaber, gertaera bideratzeko moduari buruz ez zuen ezer argitu atestatuan.

Atestatua ez bidali izana honela argudiatu zuen: *“Ya manifestábamos en nuestra anterior contestación que el atestado policial que se nos reclama tenía la consideración de documento judicial y, como tal, entendíamos no podríamos trasladarlo a nadie sin autorización del titular del Juzgado. En cualquier caso, nos someteremos a opiniones mejor fundadas que dieran por válido y procedente el traslado. Hasta ahora la Guardia Municipal había sido muy rigurosa en ello y para cambiar tal proceder necesitaríamos de una cobertura jurídico-legal que por ahora no disponemos”.*

Behar-beharrezkoa da nabarmentzea udalak bidali zigun lehenengo erantzunean ez zela adierazi hori zela bere iritzia eta hori ere dokumentua ez bidaltzeko arrazoia. Are gehiago, zentzu horretan bidali genion eskakizuna ez zuen aipatu



ere egin eta ez zituen azaldu hura betearazteko oztopo ziren arrazoiak. Udalak bidalitako informazioan erreferentzia bakarra egiten zitzaion atestatuari. Atxiloketa zela eta egin zutela esateaz gain, medikuaren txostenaren aipamen bat egiten zuen eta txostena atestauarekin batera erantsi zutela zioen. Lehenago ere idatzi dugun bezala: *“por ser un documento que debe estar unido al mismo para su traslado al Juzgado de Guardia”*.

Bestalde, epaitegiko informazioa bildu eta gure eskaera erantzun ahal izateko, nabarmendutako arazoa gainditzeko udalak ezer egin zuenentz ez zen argitzen informazio berrian.

Gogoetak

1. Nahiko ohikoa da Arartekoak poliziaren jardunbidearen inguruan jasotzen dituen kexen iturri diren jazoeren berri zigor jurisdikzioak izatea, aldi berean. Bi arrazoiengatik: dela esku-hartzean atxiloketa edo zigorrak egozten direlako atxiloketarik gabe, dela kaltetutako pertsonak agenteak zigor epaitegiaren aurrean salatzen dituztelako, edo egoera biak batera.

Kasu hauetariko askotan oso ohikoa izaten da ere, administrazioek guk galdetutakoari ez erantzutea eta prozedura judicial bat garatzen ari dela jakinaraztea bakarrik. Halaber, esaten digute azken egoera horrek gure eskakizunari erantzuna emateko baldintzatzailea dela eta gure ustetan gehiegizkoa den denbora erabiltzen dute gure eskaerari erantzuteko, kexa honen kasuan gertatu bezala.

Azken urteetako Eusko Legebiltzarrerako ohiko txostenean arazo horren berri eman dugu. Bertan gure iritzia azaldu dugu eta orain errepikatzeko beharra dugu.

Behin eta berriz esan dugun bezala, ikerketa berehala egitea erabakigarria da mekanismo horrek gertatutakoa argitzeko duen xedea arrakasta izateko gutxieneko berme batzuekin bete ahal izan dezan.

Horregatik hainbatetan errepikatzen dugu beharrezkoa dela polizi arduradunek ikerketak ahal bezain azkar hastea, ustezko jardunbide irregularraren berri izan bezain azkar. Halaber, gaitzetsi egiten ditugu ikerketa justifikazio barik berandutzen duten jardunbideak.

Erakunde honek badaki, kexa eragiten duen polizi jardunarekin erlacionatutako gertakariak prozedura judiciala izapidetzea badakarte, muga nabarmenak izango dituela bere esku-hartzean, besteak beste, 27ko 3/1985 Legearen 13.1 artikulua ezartzen dituenak. Horren arabera, ez da *“sendetsitako epaiaren gai izan edo epailaritza-erabakiaren zain egon daitezen arrenkurak banaka aztertzen hasiko”*.



"ARARTEKOa ez da sendetsitako epaiaren gai izan edo epilaritza-erabakiaren zain egon daitezen arrenkurak banaka aztertzen hasiko".

Hortaz, uste dugu, eta horrelaxe adierazi dugu gai honetaz arduratu behar izan dugun bakoitzean, artikulu horrek ez duela gure esku-hartzea %100ean bazter uzten kasu hauetatik.

Erakunde honentzat ukaezina da aginduak debekatzen diola Arartekoari zigor jurisdikzioak bakarrik ezagutu ditzakeen kontuak aztertzea eta haiei buruz epaiak igortzea. Baina, gure irizpidearen arabera, agindu horrek ez digu eragozten honelako kasuetan gure esku-hartzerako hautatu ohi dugun prebentzio esparruan jardutea. Horrela, polizi arduradunei eskatu ohi diegu udaltzainen baten jokabide zehatzari buruzko kexa jasotzen dutenean gure ustez errespetatu behar dituzten jarraibideekin bat etorri jardun dezatela, alegia, gure gomendio orokorrean jasotakoekin: "Polizi kidegoek kontrol-tresnak ezarri beharra, agenteek arauz kanpo jarduten duten kasuetarako". eta aipatutako gomendioa bete dela egiaztatu ohi dugu.

Gure ustez, aipatutako artikuluak ere ez du eragozpenik sortzen erakunde honek polizi arduradunek burutu duten ikerketari buruzko informazioa jaso dezan. Ez da ezta ere, gure ustez, prozedura judizialean aztertzen ari ez diren kexaren beste alderdiak aztertu ditzagun edo Arartekoak Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoen menpeko polizi kidegoei zuzendutako beste gomendio orokor batzuk bete ote diren egiazta ditzan. Arartekoari dagokio herritarren eskubideen aurka joan daitezkeen jokabideei aurre hartzea.

2. Kexa eragiten duten gertakarien gainean zigortzeko prozedura gauzatzen ari bada, horrek ere hainbat muga jartzen dizkio polizi administrazioek kontu honetan egiten duten esku-hartzeari, horien artean prozesu horretan epaitzen ari diren jokabideak gaitzesteko debekua, epailearen ebazpena itxaron behar izatea zehapena eman ahal izateko, eta jurisdikzio maila horretako epai batek frogatutzat ematen dituen gertakariak frogatuta izatea.

Nolanahi ere, gure ikuspegitik, horrek ere ezin lezake oztopo izan administrazio horiek salatutako polizi jarduna azter dezaten, ezta jarduera hori zegozkion parametroetara egokitzen ote zen egiazta dezaten ere.

Gure iritziz, Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren uztailaren 17ko 4/1992 Legeak berak adierazi genuen interpretazioa babesten zuen, agenteen aurkako prozedura penalak egiten ziren kasuetan, honakoa adierazten du: *"Euskal Herriko Poliziako kideen kontra zigor-legezko prozedura hasteak ez du galaraziko egintza berengatik alde aurreko informazioa edo dagokion diziplinazko espedientea izapidetzerik, eta, hala badagokio, espedientepekoai aldi baterako geldialdia ezarriko zaie eta egoki diren bestelako bermezkot neurriak ere hartuko dira. Hala ere, aipatutako prozedura horiek zigor legez emandako epaia sendetsia denean bakarrik erabaki ahal izango dira, aipatzen*



dituen ekintza frogatuen adierazpenak Administrazioa lotzen duela” (91.5. artikulua).

Uste dugu aipatutako inguruabarra ezin litzatekeela oztopo bat izan administrazioak Arartekoari horren inguruan burutu dituzten jardueri buruz informa diezaion.

3. Kexaren kasuan gure esku-hartzea aipatutako alorrean kokatu dugu. Izan ere, eman zaigun informazioarekin, kontuan hartzen badugu erreklamatzailerak salatzen zuen gertakarien ia osotasun praktiko guztia baloratzeko eskumena, gertakariak epaitzen zituen jurisdikzio penalarik zegoela, haren atxiloketaren ondorioz. Era berean, jurisdikzio horri zegokion baita ere atxilotu gisa haren eskubideak bermatzea.

Hori dela eta, Donostiko Udalarik zuzendu genion laguntza eskaera gure ustez beharrezkoak ziren datuak eta dokumentuak biltzeko asmoz. Horrela, gure ustetan kexa horretan aplikatu zitezkeen gure gomendioak bete ote ziren ziurtatze aldera.

Aurrekarietan adierazi dugun moduan, guri interesekoa da bi gomendioen betetzea. Gomendio horiek honako hauek ziren: alde batetik, izaera orokorra duen gomendia, "Polizikidegoek kontrol-tresnak ezarri beharra, agenteek arauz kanpo jarduten duten kasuetarako", eta, bestetik, txostenean egin genituenak "Bilboko San Frantzisko zonan atzeritarrekiko burututako jarduerak polizialei" buruzkoak, indarraren erabilera eta agenteek jasotzen dituzten kexak kontrolatzeko [7. eta 8. gomendio zehatzak].

4. Izaera orokorra duen gomendian, "Polizikidegoek kontrol-tresnak ezarri beharra, agenteek arauz kanpo jarduten duten kasuetarako", ulertu genuen polizikidegoek ikerketako barne prozedurari ofizioz hasiera eman behar diotela, betiere, agenteren baten okerreko jarduerak posible baten berri badute, gertatutakoa ikertzeko, jarduerak bidezko moduan gertatu zen frogatzeko eta, kasu honetan, neurri egokiak, diziplinako neurriak edo bestelakoak hartzeko.

Espedienteko gaiei dagokionez, bertan azpimarratu genuen polizikidegoek arduradunek lehen adierazgarri gisa hartu behar dituztela kexa hauek eta, nolahi ere, horiek ikertu eta aztertu egin behar dituztela, argi eta garbi gezurrezkoak edo sinesgaitzak direnean izan ezik.

Aurrekarietan aurreratu dugun moduan, gomendian baita ere azpimarratu genuen, gure ustez, prozedura penalarik ez duela ikerketa egitea eragozten, nahiz eta kexaren xedea eta zigor prozesuarena bat etorri, eta ezta jardunbide polizikidegoak administrazioak agenteen jokabidearen azterketa egiteko diziplinari dagokionez ere, hori jarraitu beharreko portaera irizpideetara egokitzeko ere.



Azken batean, uste genuen agenteen bertsio kontrajarria egotea edo salatutako gertakarien kontrako polizia-atestatua egotea, ez zirenla nahikoa kexa bat besterik gabe ez onartzeko, beste ikerketa jarduera batzuei atea ixteko edo poliziaren jarduketara egokia izan den ala ez erabakitzeke.

5. Indarra erabiltzeari dagokionez, "Bilboko San Frantzisko zonan atzerritarrekiko burututako jarduera polizialei" buruzko txostenean zera adierazi genuen: *"indarraren erabilpenak azken bidea izan behar du"* eta *"goitik behera aintzat hartu behar dira egokitzapen eta neurri legezko printzipioak; erabakia oinarritu behar da zentzuzko iritzian"* [8. c) gomendio zehatza].

Horrez gain, poliziaren jardunbidearen inguruan geroagoko kontrola egitea ahalbidetzen duten mekanismoak ezarri behar direla nabarmentzen genuen.

Ikuspuntu horretatik, txosten horretan aipatu genuen, lehenik eta behin, agenteek dagokion kontrol zentroko sistema informatizatuari jakinarazi behar dizkiotela beren jardueraren arazoak polizi egoitzatik kanpo indarra erabiltzen dutenean (7. gomendio zehatza).

Era berean, honako hau eskatu genuen: *"polizia jardueragileak uste duenean bidezkoa dela indarra erabiltzea, obligazioa izan dezala bere erabakia funtsatu duten arazoak jasotzeko, eta esateko zehatz mehatz nola burutu den bere esku-hartzea"*; azken obligazio hori, gure ustez, beti bete behar dela adierazi genuen, baita hauxe azpimarratu ere: *"erabilitako indarraren deskripzioa egin behar da, zehatz-mehatz"* [8. c) gomendio zehatza].

Azkenean, polizi funtzionarioak hartzen duen erabakia hierarkian gorago dauden buruek kasuz kasu kontrolatu eta berretsi behar dutela ere aipatzen genuen [8. c) gomendio zehatza].

6. Aipatutako txostenean (7. gomendio zehatza) eta berriki izaera orokorreko gomendioan, "Polizi kidegoek kontrol-tresnak ezarri beharra, agenteek araz kanpo jarduten duten kasuetarako", azpimarratu genuen beharrezkoa dela oker jarduteagatik agenteei irekitzen zaizkien barne espedienteen eta kexen kontrola egitea ahalbidetzen duten mekanismoak erabiltzea, gure ustez, kontrol horrek araz kanpoko behin-behineko jarduerak ekidin eta polizia-zerbitzua hobetzen lagun baitezake.
7. Aurrekarietan adierazi dugun moduan, Donostiako Udalak ez digu zuzenean eta esplizituki kexa aztertu duenaren berri eman, nahiz eta datu hori ezagutzearren behin eta berriz saiatu ginen.

Eman dizkigun azalpenetan adierazi digu, kexa eragin duten gertakarien arazoiei buruz agenteek adierazi dutena ez datorrela bat interesdunak adierazi



duenarekin. Eta honakoa dela eta, *“controles e informaciones recabadas en su momento no se desprendía, en principio, evidencia alguna de una actuación irregular de los Agentes intervinientes”*, ordea, ondorioztatzen dugu, ikerketaren bat egin zuela eta, horren arabera, poliziaren jardura lehenengoz baloratu zuen.

Aurrekarietan nabarmendu dugu, era berean, udalak ez digula ikerketan egin diren jardueren berri eman; kexa dela-eta kaltetutako agenteen bertsioa bildu izanari buruz baino ez. Jasota utzi dugu, orobat, ez digula bertsio horren berri eman eta ezta agenteen jardura egokia izan zela ondorioztatzeko arrazoiari berri ere.

Gure iritziz, gai horiei buruzko informazio falta, udal administrazioak, erreklamatzailerak atxilotu izanaren prozedura judiziala izapidetzearekin lotzen du. Eta adierazi ditugun arrazoiak kontuan hartuta, informazio falta ez dago justifikatua.

Puntu honetan, ohartarazi nahi dugu, gure ustez, udala ageriko kontraesanetan erortzen dela, kexaren ikerketak eta aztertutakoaren balorazioak ezaguera judizialari dagozkion gertaerak aurretik epaituko lituzkeela adierazten baitugu. Era berean, halako ikerketa bat egin duela adierazten digu –aipatutako salbuespen ez zehatzarekin – eta agenteen jardura baloratu duela.

Nahiz eta gure eskaera betetzeko eragozpenak hauteman dituen, udal administrazioak atxiloteta horrekin zerikusia duten zenbait datu eman dizkigu, eta horri buruz iritzi berbera dugu.

8. Aurrekarietan nabarmen gelditzen da, era berean, udalak ez digula eman kexaren kasuan gomendio zehatzak errespetatu ziren ala ez egiaztatzeko eskatu genion informazio guztia. Gomendio horiek indarraren erabilera kontrolatzeari buruzkoak dira eta "Bilboko San Frantzisko zonan atzeritarrekiko burututako jardura polizialak" txostenean biltzen dira. Bertan, jokaera hori justifikatzen da, izan ere, agenteek erreklamatzaileraren aurka erabili zuten indarra baloratzea, atxilotetaren ondorioz sortzen diren izapideak bideratzeaz arduratzen den epaitegiari baitagokio.

Horri buruzko interesa behin eta berriz azaldu diogu eta udalak honakoa besterik ez du esan: atxilotetaren ondorioz bideratu den polizi atestatuan, erabilitako indarra jasotzen dela. Hala ere, ez digu dokumentuaren kopia eman, horretarako epailearen baimena behar dela baitio, izan ere, dokumentu judizialtzat jotzen baita. Dokumentuaren edukiaren berri ere ez digu eman.

Eskatutako informazioa ez eman izana justifikatzeko udalak adierazi digun arrazoiak dela eta, zehaztu behar izan dugu ez diogula kexa ondoren erabili zen indarra baloratzeko eskatu, bere azalpenen arabera ondoriozta daitekeen moduan. Udalari eskatu diogu adieraz diezagun, kasu honetan, jardun poliziala



gertatu zen momentuan, aurretik aipatu dugun txostenean adierazitako prebentzio mekanismoa aplikatu zuen ala ez. Xede horrekin, arren eskatzen dizut, jakinaraz diezaguzula agenteek zegokion kontrol zentroari unean bertan eman ote zioten inguruabarraren berri eta agiri bidez zehatz-mehatz jaso ote zuten nola gertatu zen, baita beren buruek, une hartan bertan, eta ez kexa aurkeztu ondoren, indarra erabiltzea egokitzat jo eta ontzat eman ote zuten ere.

Hortaz, interesatzen zaigun informazioa eta udal administrazioak eman ezin diguna, ez dira berdinak.

Horregatik, ezin ditugu onartu udalak, bere jardunbidea funtsatzeko, erabiltzen dituen arrazoiak.

Bestalde, erakunde honetako ordezkariak, 2007an Udaltzaingoaren bulegora bisita egin zuten, eta bertan bildutako informazioaren arabera, polizi kidego horrek ez litzuke aipatutako gomendioak beteko.

Informazio hori bera kontuan hartuta, erabilitako indarra, agiri bidez, atestatuan jasotzen dena baino ez litzateke izango.

Aurrekarietan azaldu dugun moduan, udalak polizi arduradunek agenteen jardueraren inguruan egiten dituzten kontrolen berri eman digu. Kontrol horiek onuragarritzat jotzen ditugu baina, gure ustez, aldi berean, ezin dituzte gomendioetan ezarri genituenak ordezkatu, indarraren erabilera modu zehatzean kontrolatzeko.

Beste alderdi batean ere, ez dugu udalak eman digun justifikazioa partekatzen, polizia-atestatuaren kopia ez emateari dagokiona.

Gai horren inguruko zenbait azterlan doktrinalek azaldutako iritziarekin bat eginez¹, uste dugu aipatutako dokumentua izaera administratiboko polizi dokumentua dela, prozesua eta jardun judiziala baino lehenagokoa.

Bidezkoa iruditzen zaigu gogoratzea otsailaren 27ko 3/1985 Legeak ezartzen duena, alegia, erakunde honen kontrolpean dauden administrazioak behartuta daudela Arartekoari honek eskatzen dizkien agiri guztiak ematera, polizi-atestatuak salbuetsi gabe (23. art.) eta, izaera orokorrarekin, salbuespena ere ez da beste arauetatik eratortzen.

¹ (CABO MANSILLA, J.M.ª: "El atestado policial". Poliziaren Zuzendaritza Nagusiaren Prestakuntza eta Hobekuntza Alorra. Madril, 1991, 21. or., honako hauetan aipatua: ALONSO PÉREZ, Francisco: "La policía judicial: Legislación, Comentarios, Jurisprudencia, Formularios", Dykinson argit., 1998, 57. or.. GÓMARA HERNÁNDEZ, José Luis eta AGORRETA RUIZ, David: "Prontuario de seguridad pública e intervención policial", DAPP Publicaciones Jurídicas, 2004, 381. or.).



Gure iritziz, nolnahi ere, udal administrazioak uste bazuen eskatzen genion polizi-atestatua igortzeko epailearen baimena behar zuela, baimen hori lehenago eskuratu beharko zukeen. Aurrekarietan adierazi dugun moduan, ez zaigu azaldu horrela egin zuenik.

Bestalde, ulertzen dugu udalak gure laguntza eskaera ez eskuratzeko eman dizkigun azalpenek ezingo luketeela arrazoitu atxiloketaren gainontzeko erregistro dokumentalak eman ez izana, eta beren erantzunetan gaia ez aipatzea.

9. Azaldu dugun informazio faltak eta jada jakinarazi ditugun arrazoiengatik, justifikaziorik gabea jotzen duguna, gure erakundeari oztopo egiten dio. Izan ere, agindutako gomendioak betetzearen kontrola den bere funtzioa behar bezala betetzeko elementuak falta zaizkio.

Egiaztaketa falta dela eta, ulertu behar dugu udalak ez dituela gomendioetan jaso genituen urratsak jarraitu.

10. Aurrekarietan nabarmendu dugun bezala, erraklamatzaileak kexan adierazi zuen gaitako bat honakoa zen: Udaltzaingoak uko egin ziola bera atxilotuta egon zen bitartean artatu zuten osasun zerbitzuek egindako txostenaren kopia bere amari emateari.

Helarazi zaizkigun datuen arabera, gure aburuz, alderdi honek ez du inongo loturari atxiloketaren ondorioz martxan jarri zen prozedura judizialarekin. Nolanahi ere, udalak ez digu bereizgarri horren inguruko informaziorik eman.

Jakin ahal izan dugun bezala, interesdunak dokumentu hori eskuratzea izan du. Hortaz, ez litzateke zentzuzkoa izango udalari agintzea dokumentua interesdunari bidaltzeko.

Edonola ere, beharrezkotzat jotzen dugu zehaztapan bat egitea. Izan ere, jazoerak kexak azaldu bezala izan baziren, gure aburuz eta udal informazioa faltan dugula, ukatzeak ez luke justifikaziorik izango.

11. Azkenik, uste dugu udalak, kaltetutako agenteen jarduera aztertzerakoan agente horiengan eragina izan duten beste kexa eta salaketen inguruan dituen datuak kontuan hartu beharko lituzkeela, azaldu ditugun gomendioetan aipatutakoaren arabera.

Horregatik guztiagatik, Donostiako Udalak kexa ebazteko eman dizkigun datuak ikusita, eta orain arte eman ez digun informazioa berriz ere eskatzeak zentzurik ez duela iritzita, gai honetan gure esku-hartzea amaitutzat ematea erabaki dugu, eta hona hemen



Ondorioak

1. Donostiako Udalak ez dio behar bezala erantzun, kexaren kasuan, izaera orokorreko gomendioaren betetzea ziurtatzeko beharrezkotzat jo genituen datuen inguruko igorritako laguntza eskaerari "Polizi kidegoek kontrol-tresnak ezarri beharra, agenteek arauz kanpo jarduten duten kasuetarako" eta egin ditugun gomendio zehatzei, txostenean indarraren erabilera kontrolatzearen ingurukoa "Bilboko San Frantzisko zonan atzerritarrekiko burututako jarduera polizialak".
2. Gure iritziz, jarduteko modu horrek ez du justifikaziorik eta halabeharrez ulertu behar dugu zure jarduna ez zenuela guk ezarritako gomendioekin bat burutu.
3. Udalak beharrezkoa dena xedatu beharko du etorkizunean aipaturiko gomendioak beteko direla bermatzeko.
4. Adierazi bezala, erreklamatzalearen amari alaba atxilotuta egon zen bitartean jaso zuen osasun laguntzari buruzko txostenaren kopia ematea ukatu bazioten, horrek ez luke justifikaziorik izango.

Ebazpen hau ez da inolako oztopoa udalak egoki iritziz gero, erakunde honi gai honi buruzko bere gogoetak helarazteko eta informaziorik eza nabarmendu dugun alderdien gainean iritzi arrazoitua eman ahal izateko behar ditugun datuak emateko.

